

SCPSAren Pribatutasun Politika

Webgune honen bidez jasotzen diren datu pertsonalen tratamendua hauetan ezarrita dauden printzipio eta betebeharrei egokituko zaie: 2016ko apirilaren 27ko EUROPAKO PARLAMENTUAREN ETA KONTSEILUAREN 2016/679 ARAUDIAN (EB), pertsona fisikoen babesari buruzkoan, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez, abenduaren 5eko Datu Pertsonalen Babesari eta Eskubide Digitalen Bermeari buruzko 3/2018 Lege Organikoan, eta une bakoitzean datuen babesaren gainean indarrean dagoen gainerako araudian.

Domeinu horietan, ez da datu pertsonalik jasotzen baimenik gabe. Interesdunak ematen dituen datuak delako prozeduran edo jarduketan aurreikusitako helburuetarako erabiliko dira, soil-soilik eta berariaz.

Datu pertsonalak jasotzen diren formularioak dituen orrialde bakoitzean berariaz jakinaraziko da datuen fitxategi bat edo tratamendua dagoela, arduradunaren nortasuna zein den, bilketaren xedea, informazioaren hartzaileak izango diren pertsonak, Datuen Babesaren Ordezkararen nortasuna, egon litezkeen lagatzeak eta bai datu horien gaineko eskubideak non eta nola gauzatu ahal diren ere.

Arduradunak uste du eta ulertzen du titularrak edo hark baimendutako pertsonak idatzi dituela datuak, eta zuzenak eta zehatzak direla.

14 urtetik beherakoak ez daude baimenduta beren datu pertsonalak ematera, zerbitzuak eskatzeko egokitutako web-formularioak betetzearen bidez, kontakturako formularioen bidez edo mezu elektronikoa bidaltzearen bidez.

Horrenbestez, bitarteko horiek baliatuta datu pertsonalak ematen dituztenek formalki adierazten dute 14 urtetik gorakoak direla edo, halakorik izan ezean, aitaren, amaren eta/edo legezko tutorearen baimen egokia dutela.

Erabiltzaileari dagokio bere datuak eguneratzea. Datuen tratamendua egiten duen erakundea ez da datuak zehaztugabeak edo okerrak izatearen erantzulea izango, erabiltzaileak ez baditu jakinarazten izan diren aldaketak (adibidez, helbide elektronikoa aldatu izana).

1.- Nor gara?

Webgune honek IRUÑERRIKO ZERBITZUAK, S.A. sozietatearen informazioa hartzen du. Sozietate horren helbidea Iruñeko Chinchilla Jeneralaren kalearen 7.ean dago. Merkataritza-sozietatea da, eta bere kapitala osorik da Iruñerriko Mankomunitatearena, berak sortu baitzuen zuzenean kudeatu ahal izateko bere xedea eratzen duten zerbitzu publikoak. Hartara, SCPSAri dagokio ur-horniduraren eta -saneamenduaren eta hondakinen zerbitzuak kudeatzea.

2.- Zertarako erabiltzen ditugu zure datu pertsonalak?

Aurreko atalean adierazitako zerbitzuak emateko erabiliko ditugu zure datu pertsonalak, zerbitzu horien kudeaketa SCPSAri baitagokio.

3.- Zenbat denboran gordeko ditugu zure datuak?

Tratamenduaren xedeari eusteko beharrezkoa den denboran gordeko dira, ez gehiago, edo zaintza agintzen duten lege-aginduak dauden bitartean. Eta horretarako beharrezkoak ez direnean, datuen anonimizazioa edo guztiz suntsitzea bermatzeko egokiak diren segurtasun-neurriekin ezabatuko dira.

4.- Zein hartzaileri komunikatuko zaizkie datuak?

Aipatutako datuak ez dituzte inolaz ere beste batzuek tratatuko edo ez zaizkie lagako, ukituaren baimena edukita ez bada izan ezik, edo Datuak Babesteko Araudi Orokorrean eta datu pertsonalak babestearen gainean aplikagarria den gainerako araudian jasotako kasuetan ez bada.

5.- Eskubideak gauzatzea

Datu pertsonalak babesteko aipatu den araudian xedatuta dagoena betetze aldera, lagatzaileak, edozein unetan, datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko edo datuen eramangarritasuneko eskubideak gauzatu ahal izango ditu, eta bai datuak tratatzea mugatzeko edo horren aurka egiteko eskubideak ere, jarraian adierazten den informazio gehigarrian zehazten den moduan.

Datuak ez direla zuzen tratatu uste izanez gero, jakinarazi ahal izango diguzu protecciondatos@mcp.es helbide elektronikoaren bidez, edo kontrol-agintaritzara jo ahal izango duzu zuzenean: Datuak Babesteko Espainiako Agentzia.

6.- Datuen babesaren informazio gehigarria

Jarraian, SCPSAn erabilitako datuen multzo egituratua eta haietako bakoitzari dagokion datuen babesaren informazio gehigarria, [hemen](#) aurki dezakezuna, adierazten dira.

Eskatutako datu pertsonalei dagokienez sekretu-betebeharra eta konfidentziasunez tratatzeko betebeharra betetzearen konpromisoa bere gain hartzen du arduradunak. Helburu horietarako, beharrezkoak diren neurriak hartuko dira, datuak aldatzea, galtzea edo baimendu gabe tratatu edo eskuratzeta saihesteko.